

HAUTAMEN ASKEAREN ERLATIBISMOA



EGILEAK:

Inaki Urteaga

Eneko Alberdi

Igor Ollo

0. Aurkibidea	
1. Laburpena	3
2. Abstract	3
3. Hipotesia	4
4. Marko teorikoa	4
5. Metodologia	7
5.1 Diseinua	7
5.2 Prozedura	7
6. Ondorioak	7
6.1 Datuen interpretazioa	7
6.2 Azken hausnarketa	9
7. Bibliografia	9

1. Laburpena

Hautamen askea doktrina filosofiko bat da, zeinen arabera pertsonak beren erabakiak hartzeko eta aukeratzeko ahalmena duten. Hala ere, gizaki modernoak ez da bakartua, baizik eta gizartean bizi da, bere kideekin batera. Horrek, argi eta garbi, erabat aldatzen du gizakiaren beraren errealitatea; izan ere, horrela, bere askatasuna hedatua eta murriztua dago bere berdinen presentziaren bidez.

Hasiera batean gizakia benetan aske izan bazen ere, garunaren konplexutasun biologikoa kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu, Daniel Kahneman psikologo israeldar-estatubatuarrak (Amos Tversky kidearekin batera) aurkitu zuen bezala, gizakiaren nahikundeak "alborapen kognitibo" ugariren eragina eta kontrola izan duela beti, eta bere kontzientziaren bahitu bat baino ez dela izan, hari ikusezinek kontrolatutako txotxongiloa.

Horri guztiari Robert Sapolsky neurobiologoaren ikerketak gehitu behar zaizkio, zeinak, gahi honi buruz, behin esan baitzuen "ez dut uste biologiak aukerarik uzten duenik", izan ere, bere ustez, gure askatasun-ilusioa "kontrolaren ilusioa" besterik ez da, errealitate izugarri eta hotzetik babesteko sortu dugun ezkutua.

Lehenago esandako guztiagatik, herri iritzia ulertzeko, Urretxu eta Zumarragako oinezkoen inkesta bat egitea da gure helburua. Horrela, inkesta egiten diegun gizabanakoek, test moduko galdera batzuen bidez, gai delikatu honi buruz duten ikuspuntuari buruz argituko gaituzte.

2. Abstract

Free choice is a philosophical doctrine whereby people have the power of making and choosing their decisions. Yet the modern man is not isolated, but lives in society with his fellows. This clearly changes the reality of man himself, for his freedom is thus extended and diminished by the presence of his equals.

Even though at first man might have been really free, if we take into account the biological complexity of the brain, we shall find, as the American psychologist Daniel Kahneman (along with his colleague Amos Tversky) found, that man's desire

has always been influenced, moreover controlled by many "cognitive biases", and that he has only been a hostage of his consciousness, a puppet controlled by invisible threads.

In addition to all this, there is the research of neurobiologist Robert Sapolsky, who, on this issue, once said, "I don't think biology leaves a chance," Because, in his opinion, our illusion of freedom is merely the illusion of control, the shield we have created to protect it from the terrible and cold reality.

Taking into account all our previous points, our aim is to make a survey of the citizens of Urretxu and Zumarraga in order to understand the popular opinion. Thus, the individuals we inquire of will, by a kind of test, explain to us their point of view on this delicate subject.

3. Hipotesia

Askatasun mota asko daude eta bakoitzak, ulertzeko era desberdinak ditu. Inor ez da guztiz askea eta askatasuna zerbaiti lotuta egongo da, askatasunaren erabaki guztiak beti muga batzuk edukiko dituztelako. Gaia oso konplexua da eta ezinezkoa da zehazki jakitea adimen askea nolakoa den. Hala ere, uste dugu jende gehienak, botere-ilusio baten ondorioz, uste duela hautapen askatasuna duela.



4. Marko teorikoa

Hautamen askea kronologikoki aztertuz gero, Hiponako San Agustin idazle, teologo eta filosofo kristaua izan zen "aukeramena" terminoa ezarri zuen lehena. gaitza eta oinazearen jatorria azaltzeko elementu gisa. Haren arabera, gizakiak entitate arrazionalak dira, arrazoiketaren bidez aukerak ebaluatzeko gaitasunean datza




arrazionaltasuna, eta, beraz, askatasuna Jainkoak emandakoa behar zen beraz, ongiaren eta gaizkiaren artean aukeratzeko ahalmena barne. Jainkoak Adan eta Evaren esku utzi behar izan zuen, Bibliaren arabera zehazki gertatu zena Gizakion bornodatez gertatu izana. Agustinek irakatsi zuen Adanen eta Evaren bekatua zentzugabekeriako ekintza bat zela, eta, ondoren, Jainkoarekiko harrotasuna eta desobedientzia, baina ez egintza gaizto bat; izan ere, Agustinen beraren arabera, "gaitza ez da entitate positibo bat, eta, beraz, ezin da «izan»; beraz, gaizkia ongiaren gabezia edo eskasia da, eta ez errealitate bat bere baitan".

Hala ere, historian zehar, munduko erlijio eta kultu askok askatasunari buruzko gogoeta egin dute kristautasunaz haratago doan ikuspegi teologiko batetik. Guztien artean, askatasunari buruzko irizpide budista nabarmendu behar da; hala nola, erlijio honetan, gizakia, bere ekintzen arabera aldatzeko modu gisa ulertzen zuten, denbora zati bakoitzak, milisegundo bat izanda ere, gure pentsamendua eta jokaera aldatzen duenak, gure erabakiaren kausa da. Denbora pasatzen duen bitartean, berraragitzen gara, hau da, norbait berria gara, lehen ez bezalakoak. Hori da aukeratzeko gaitasuna, gure jokaera aldatzeko gaitasuna.

Ehundaka urte geroago, Nicolas Makiavelok (1469-1527), hautapen askeari buruz egin zuen interpretazioan, zorteak gizakiaren ekintzen erdia zehazten duela zioen, baina beste erdia gizakiaren borondatearen esku geratzen omen da. Ideia hori bere hautespenean askearen ideian dago jasota, mugatua izan arren, zabaldu egin baitaiteke eta zorioari aurre egin eta gertaera historikoen bidea alda baitezake.



Friedrich Wilhelm Nietzsche (1844-1900) filosofo eta filologo alemaniarrek emandako gizakion hautapen-askatasunari buruzko ikuspegia beste gogoeta ospetsuenetako bat izan zen. Haren arabera, gizarteak, gizakia zatikatzeaz gain, bere baitan murgiltzera ere bultzatzen du, gizaki aske baten sorrera guztiz ezinezkoa bihurtzen duelarik.



Azken urteotan, gora egin dute hautapen askeko eremua inguratzen duten ikerketa, esperimentu eta aurkikuntzek. Hauek ondorioztatu duten bezala, subjektuaren erabaki kontzientea gidatzen duen burmuineko jardura inkontzienteak, gutxi gorabehera, subjektuak kontzienteki erabaki duela hauteman baino lehen hasten dela, eta horrek desestimatu egiten duela gure erabaki-ahalmena, fantasia hutsa baino. Horien artean Benjamin Libetek edo Matsushik eta Hallettek zuzendurikoak nabarmendu nahi nituzke.

Horiez gain, aztergai dugun gaiari buruzko ikerketa garrantzitsuenetako bat Daniel Kahneman psikologo israeldar-estatubatuarrak eta Amos Tversky lankideak "isuri-kognitiboak" aurkitu izana da. Azken finean, isuri-kognitiboak efektu psikologiko bat dira, errealitateaz dugun pertzepzioa desitxuratzen duena; gure garunak ebaluazioez, pertzepzioez, erabakiak hartzeko prozesuez eta norberaren memoriaz duen pertzepzioa nahasten duenean gertatzen dira, hautemate askearen existentzia mugatuz edo praktikoki ezetsiz. Adibidez, sarritan frogatua izan da erabaki bat hartzerakoan, gure subkontzienteak guk geuk baino lehenago erabakitzen duela azkenean guk hautatuko dugun aukera.



Horri guztiari gehitu behar zaio gure gizarte-egoerak ere garrantzi handia duela gure askatasunetan. Azken buruan, gizakiok kultura egiten dugu eta berak eraikiak gara, kultura eta pertsonak bata bestea gabe pentsaezinak dira. Beraz, gure askatasuna hazten eta komunikatzen garen gizarteari lotuta dago; erlijioarekin, ohiturekin, hezkuntzarekin, bizi izan ditugun prozesu historikoekin lotuta dago, bai banaka, bai kide garen herriaren memoria historikoarekin. Ziur aski, herri juduak edo ijitoak eta Latinoamerikako edo Afrikako herriak ez dute modu berean beren askatasuna erabiliko. Gizarte batean adierazpen komuna eta are begi-bistakoa izan daitekeena, beste gizarte batzuetan komunitate horrek ezarritako kanonak urratzen eta are urratzen dituela irudi daiteke.

5. Metodologia

5.1 Diseinua

Galdetegia sortzeko orduan, hainbat motatako ataletan banatu dugu: hasteko, inkesta egin zaionari bere adina eta generoa azaltzen dizkiogu; ondoren, esaldi batzuk planteatzen dizkiogu, eta hartzaileari eskatzen diogu haiekin ados dagoen ala ez adierazteko 1etik 10erako eskalan.

Jarraian, psikologiako esperimendu bat kontatzen dugu, eta horren inguruan "Bai edo ez" motako galdera bat egiten diogu; azkenik, hartzaileari hainbat datu

estatistiko eskaintzen dizkiogu inkestatuari eta bere burua ideologikoki kokatzeko eskatzen diogu.

5.2 Prozedura


Gure ikerketa egiteko orduan, Urretxu eta Zumarragako adin guztietako jendeari eskaini diogu 2022ko martxoaren azken bi asteetan. Nabarmentzekoa da gure erantzunak lagin txiki batenak direla jakin arren, iritzi orokor gisa interpretatuko ditugula.

6. Ondorioak


6.1 Datuen interpretazioa

Bildu ditugun datuak zorrotz aztertzen hasi aurretik, nabarmendu behar da gure inkestak 15 pertsonaren erantzunak jaso dituela, eta, jakina, talde txikia denez, ondorioak ateratzeko orduan orokortu egin beharko dugu.

3. Galderarekiko erantzuna gizonezkoengan




3. galderarekiko erantzuna emakumeengan



Hirugarren galderaren erantzunak azkar aztertuz gero, ohartuko gara inkestatu gehienak ados daudela planteatutako perpausarekin, are gehiago emakumeak badira; beraz, ondoriozta dezakegu inkestatuen gehiengo handiak uste duela giza hegoaldeak baduela, gutxienez hautamena, bestela ez baitzatekeen ados egongo esaldiarekin.


Era berean, eredu ideologiko hori errepikatu egiten da mota horretako galdera gehiagoko erantzunetan (zehatzagoak izateko 4., 5., 6. eta 7. galderak)

8. Galderarekiko erantzuna



Aurreko paragrafoan planteatutakotik gehiegi urrundu gabe, zortzigarren galderaren erantzunak aztertzeari ekiten badiogu, argi eta garbi ikusiko dugu inkestatutako gehienak ez daudela ados hautamen askeak alternatiba baterragarria izateko aukerarekin; izan ere, Aitorrek, bere borondatea gauzatzen ari den arren, aukera askerik ez duela dioen arren, aukera hori alde batera uzten dute.

Autatutako ideologia



Atal honi amaiera emateko, ikus dezakegu gizonek hautamenaren inguruan duten iritzia hiru atal ekibalentetan lerratuta dagoela argi eta garbi, eta emakumeek, berriz, ikuspuntu libertario batetik jotzen dutela gehiengo zapaltzaile gisa.

6.2 Azken hausnarketa

Laburbilduz, hipotesian planteatzen dugun bezala, eta beti kontuan hartuta ondorioak gehienbat orokortuak daudela, jende gehienak, botere-ilusio bat, edota isuri kognitiboak direla eta, hautapen askatasuna duela uste du.

7. Bibliografía

Braininvestigations. (2020). Qué es el sesgo cognitivo y por qué es importante en los negocios. Braininvestigations. Obtenido el 2 de Febrero de 2022, desde

<https://www.braininvestigations.com/neurociencia/sesgo-cognitivo-negocios/>

Echandi, M. (2013). El Concepto De Ser Humano En Nicolas Maquiavelo. Extraído el 16 de Febrero de 2022.

Jiménez, J. (2022). La Ciencia Lleva Siglos Luchando Contra El Libre Albedrío. Extraído el 25 de Abril de 2022, desde

<https://www.xataka.com/investigacion/mito-libre-albedrio-debate-somos-arbitros-nuestro-propio-destino-simples-marionetas-carentes-valor-3>

K. Sen, Amartya. (1999). La libertad individual como compromiso social. Ecuador.

(2022). Libre albedrío. Wikipedia. Obtenido el 2 de Febrero de 2022, desde

https://es.wikipedia.org/wiki/Libre_albedr%C3%ADo#Neurociencia.

Lopez, V. (2020). La relatividad de la libertad. Diario Junio. Obtenido el 2 de Febrero de 2022, desde <https://www.diariojunio.com.ar/la-relatividad-de-la-libertad>

Moya, Carlos J. (2018). Libre Albedrío. Enciclopedia De La Sociedad Española De Filosofía Analítica. Obtenido el 25 de Abril de 2022,

[desdehttp://www.sefaweb.es/libre-albedrio/](http://www.sefaweb.es/libre-albedrio/)

Ponsow, M. (2007). Que la biología diga lo que quiera. La Nación. Obtenido el 2 de Febrero de 2022, desde

<https://www.lanacion.com.ar/opinion/que-la-biologia-diga-lo-que-quiera-nid904936/>

Richart, A. García-Granero, M. Ortega Esquembre, C. de Tienda Palop, L. (1999).

Juicio moral y democracia retos de la ética y la filosofía política. Ecuador:

Comares S.L.

Saralegui, M. (2007). Totalitarismo y libertad individual. España:
Universidad de Navarra.